



*Ajangizko Udala*

## **AJANGIZKO UDALEKO TALDEEK UDAL KULTUR ETXEKO LOKALAK ERABILTZEKO BANAN-BANAKO LAGAPENAK ARAUTZEKO ORDENANTZA.-**

### **I. Titulua**

#### **ORDENANTZAREN HELBURUA**

##### **1. Artikulua.- Helburua**

2. Erabilera lagapenen helburua, udalerriko taldeei euren jarduerak garatu eta euren helburuak lortu ahal izateko eremua ematea da, betiere egonkortasun eta jarraitasun asmoarekin.

1. Kasu zehatzetan, taldeek, lokal komunak (erakusketa aretoak, ekitaldi-aretoa, etab.) erabili ahal izango dituzte, Udalak onartutako baimenen arabera.

##### **2. Artikulua.- Laga daitezkeen eremuak**

Ajangizko Udalak, udalerriko taldeek hala eskatzen badute eta beti ere aukerak badaude, guztiz edo zati batean utzi daitezken udal titulartasuneko Kultur Etxeko lokalak laga ahal izango dizkie prekarioan.

##### **3. Artikulua.- Ordenantza honetako eskubideak erabili ditzateken taldeak**

Ekipamendu eta higiezinak erabili ahal izateko baldintza izango da talde interesdunak irabazi-asmorik ez izatea.

##### **4. Artikulua.- Eskabideak**

Udaleko taldeek idatziz eskatu beharko diote Ajangizko Udalari lokalen baten lagapena. Horretarako, burutu nahi diren jardueren proiektua, taldeak eskaini ditzakeen eta lagako zaien eremuan garatuko diren zerbitzuak eta aurreikusitako ordutegiak azaldu beharko dira.

Elkarteen kasuan, estatutuak aurkeztu beharko dituzte Udaletxean. Estatututik ez duten taldeek, taldearen helburuak zeintzuk diren, taldearen arduradun eta erantzule nor den, bere datuak eta kontakturako helbidea eta telefonoa eta kideak zeintzuk diren adierazi beharko diete Udalari.

##### **5. Artikulua.- Lagapena**

1. Udalak lokal bat talde bati lagako diola erabakitzen duenean, honako prozedura honi jarraituko zaio: Kultura Arloko zinegotziak Alkatetzari Kultur Etxeko lokalak erabili ahal izateko baimena emateari buruzko erabakia hartzeko proposatuko dio, ordenantza honetan jasotakoa jarraituz.



## *Ajangizko Udala*

2. Erabilera lagatzeko edo baimena emateko erabakiak berak ezarriko du horren iraupena, eta lagatako eremuak, erabiltzeko ordutegia eta ordutegiak ezarri edo aldatzeko irizpideak zeintzuk diren zehaztuko ditu.

3. Erabakiak, halaber, ondasun higigarrien inbentarioa ere azalduko du, horiek erabiltzeko lagapena ere egin bada.

4. Hasierako iraupena luzatu nahi izango balu, Alkatetzaren erabakiaren bitartez egin behar izango da.

5. Erabilera laga edo baimentzeko erabakian, era berean, Ajangizko Udalaren eta talde onuradunaren arteko lankidetzari eragiten dioten beste puntu batzuk ere azaldu ahal izango dira.

6. Nolanahi ere, erabakiak edo izan deitezakeen aldaketek ezin izango diote eragin edo mugarik jarri beste talde erabiltzaile batzuekin hitzaetutako erabilera baldintzei.

## **II. TITULUA**

### **LOKALAK ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK**

#### **6.artikulua.- Erabilerak**

1. Eremuak lagatakoan, talde onuradunak berezko dituen zeregin edo jarduerak burutzeko baino ezin izango ditu erabili, betiere lagapenerako Udalak taldeari onartu dion helburuari bakarrik jarraituz. Erabilera laha edo baimentzeko erabakiak zabalafu arautu ahal izango du arlo jori, egokitzat jotzen diren puntuetan. Lokala lagatzeak ez du esan nahi jarduera ori egiteko materiala ere emango denik.

2. Arestian aipatu ez den erabileraren bat egin nahi izanez gero, Ajangizko Udalaren baimena behar izango da, eta adostatutakoa bete ezean, Ajangizko Udalaren lagatzeko erabakia baliogabetu egin ahal izango da.

#### **7.Artikulua.- Mantentzea**

1. Udalerriko taldeek, eurek bakarrik erabiltzeko edo guztiek erabiltzeko eramuen eta, oro har, eraikuntza osoaren eta altzarien zaintza arduratsua egin beharko dute nahitaez. Halaber, euren gain hartu beharko dute kide eta erabiltzaileek, zerbait egin edo ez egitearen ondorioz, eragin litzaketen kalteen erantzunkizuna. Horrela berehala egingo dituzte beharrezko konponketak, euren pentzura, Ajangizko Udalak baimen eman eta gero. Atal hori ez da aplikatuko narriadura erabileraren beraren eraginez, talde onuradunaren errurik gabe edo ezustekoaren bat gertatu delako eragin bada.

2. Talde onuradunarena izango da lagapenean sartutako ondasun higagarriak (altzariak...) mantendu eta konpontzeko ardura, bai eta garbitzeko ardura ere.



## *Ajangizko Udala*

### **8. artikulua.- Ordutegiak**

#### *8.1. Bakarka erabiltzen denean.*

Lokal bat bakarka erabiltzeko baimena duten udalerriko talde onuradunek, Alkatetzaren erabakiarekin bat etorrira ezarriko dute lokala ireki eta ixteko ordutegia, betiere indarrean dagoen araudiarekin eta beti ere gainerako herritarrenganako errespetua zainduz.

#### *8.2. Besterekin batera erabiltzen denean.*

a) Erabiltzeko laga den eremua udalerriko hainbat taldek erailtzeko bada, horretarako hartutako erabakietan zehaztuko da talde balkoitzak zein egun eta ordutan erabili ditzakeen.

b) Ekipamenduak erabili ahal izateko egun eta orduak banatzeko, ezinbestekoa izanfo da udalerriko talde guztiak ados egotea. Ezinezkoa izango balitz eragindako elkarte guztiak ados gotea, Ajangizko Udala izango litzateke behin betiko ordutegiak ezartzearen arduraduna, Alkatetzaren erabakiz.

### **9. artikulua.- Baimenduta ez dauden jarduerak**

Lagatako lokalaren barruan eta betiere taldeen autonomia errespetatuz, ezin izango da pertsonen berdintasun printzipioen kontra doan jarduerarik egin. Beraz, debekatuta egongo dira indarkeriazko ekintzak, duintasun pertsonalaren kontrako ekintzak, edo pertsona zein taldeak arraza, sexu, erlijio, iritzi, orientazio sexual edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialaren ondorioz baztertzeko dituzten ekintzak.

Debekatuta dago erabaki hauen bitartez lagatako eremu publikoak Alkatetzak onartutako taldearen helburuetarako ez diren jardueretarako erabiltzea, batez ere jarduera gogaigarri, osasungaitz, kaltegarri edo arriskutsuak badira.

Erabat debekatuta dago udal instalazioetan tabakoa eta alkohola kontsumitzea.

Debekatuta dago erabaki hauen bitartez lagatako eremu publikoak jaiak, bazkariak, askariak, urtebetetze-jaiak edo antzeko jarduerak egiteko erabiltzea, edo txoko bezala erabiltzea, Ajangizko Udalak beren-beregi baimendu ez badu.

### **10. artikulua.- Obrak**

1. Talde onuradunek ezin izango dute inolako obra edo esku-hartzerik egin eurek bakarrik erabiltzeko lagatako eremuetan, ez onadasun higigarrietan ez eta, oro har, higiezin osoan ere, Ajangizko Udalak bere-beregi baimendu ez badu.

2. Obra edo esku hartzeak ondasun higiezinaren onerako geratuko dira, eta egin dituztenek ez dute inolako kalte-ordain edo konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izango.



## **Ajangizko Udala**

3. Artikulu honen 1. atalean xedatutakoa bete ezean, ondasuna jatorrizko egoerara lehengoratzeko agindu ahal izango du Ajangizko Udalak, eta ez da egongo kalte ordain edo kontentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik. Agindutakoa burutu ezean, Ajangizko Udalak subsidiarioki burutu ahal izango ditu lokala lehengoratzeko obrak, eta taldeak ordaindu beharko du kostua. Ondasuna ezin izango balitz kaltetu gabe lehengoratu, hori eragin duenak kate-ordainak ordaindu beharko ditu eragindako kateengatik. Hori gertatzekotan, Ajangizko Udalak berehala kenduko dio lokala lagatzeko baimena agindutakoa bete ez duena taldeari.

### **11. artikulua.- Erantzunkizun zibila**

Lagatako eremuetan taldeetako kide edo erabiltzaileek, zerbait egin edo ez egitearen ondorioz, doluz edo axolagabekeriaz hirugarrenei eragindako kalteen erantzule zuzena taldea bera izango da, Udala hirugarrenaren izaera bera izango du.

## **III. TITULUA**

### **ELKARTE ETA TALDEEN BETEBEHARRAK**

#### **12. artikulua**

1. Talde guztiek II. Tituluan azaldutako arau orokorrak bete beharko dituzte.
2. Halaber, beste betebeharrak hauek ere izango dituzte:
  - a) Lagatzeko baimena eman zuen Alkatetza Dekretuan ezarritako ordutegiak edo Ajangizko Udalak baimendutako gainerakoak errespetatzea.
  - b) Laga den eremua erakundearen beraren helburuetarako erabiltzea, jarduera-programa eginez, edo Ajangizko Udalak baimendu dezakeen edo erabakiak ezarrita dagoen beste erabileraren baterako erabiltzea.
  - c) Zentroan hirugarrenen merkataritza-publizidaderik ez egitea, udalak baimena eman ez badu. Zuzenean ala zeharka, zerbitzuak edo ondasun higigarri edo higiezinak kontatatu zein salerostea, erraztu edo sustatzeko helburua duen edozein komunikazio-modu hartuko da publizitatetzat.
  - d) Esleitutako eremuak eta zentroan eurekin batera dauden gainerako talde edo elkarteak errespetatzea, euren jarduerak egiteko inolako trabarik jarri gabe.
  - e) Erabilera komuneko eremuen helburu eta erabilera errespetatzea.
  - f) Auzotarrei eragozpenik ez soertu eta guneko lasaitasuna ez asaldatzea erabilera ordutegiaren barruan, indarrean dauden arauetan ezarritako neurri egokiak hartuta.



### *Ajangizko Udala*

g) Erabiltzeko laga diren eremuak osasun-egoera eta higiene baldintza hobezinetan zaintzea.

h) Zentroko giltzak zaindu eta zentrotik ateratzen azkena denean atea giltzaz ixtea. Era berean, lagatako eremuan behar bezala erabiltzeaz arduratuko dira, erabiltzaileak zaindu eta kontrolatuz.

i) Esleitu zaien eremuaren erabilera hirugarrenei ez lagatzea, ez guztiz ez zati bat, elkarte edo taldeko kidea izan zein ez.

j) Herritarrentzat zabalik dagoen zentro modura, funtzionamendu ordutegi barruan arraza, sexu, erlijio, iritzi, orientazio sexual edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialaren ondorioz sartzeko debekurik ez jartzea.

k) Irregularitasun, gorabehera edo arazorik sortuko balitz, idatziz Ajangizko Udalari jakineraztea, eta premiazko kasuetan berehala jakineraztea.

l) Lagatzeko erabakia edo erabilera baimena amaitu edo suntsiarazi ondoren, betiere 19. artikuluan adierazitakoari jarraituz, laga diren eremu eta ondasunak jatorrizko egoeran itzultzea Ajangizko Udalari, erabileraren ondoriozko higadura salbuetsita.

m) Ordenantza hau, indarrean dauden arauak eta erabilera laga edo baimentzeko erabakia betetzen direla ziurtatzeari dagokionez, segimendu eta ikerketa eskumena erabiltzeko aukera ematea Ajangizko Udalari, uneoro, lekuetara sartzen utziz eta eskatutako inoformazio eta agiriak emenez.

n) Lagatako lokalak helburu politikoetarako ez erabiltzea.

o) Lagatako lokalean ikur politiko, arrazista, matxista edo erlijiosorik ez ipintzea, ez eta pertsonen osotasunaren edo euren pentsamenduaren kontrako ikurrik ere.

## **IV TITULUA**

### **UDALAREN ESKUMEN ETA BETEBEHARRAK**

#### **13.artikulua**

Ajangizko Udalak edozein momentutan erabili ahal izango du 13.2.m) artikuluan aipatutako ikerketa eskumena. Talde onuradunak agindutakoa bete ez duela ondorioztatutako balitz, Ajangizko Udalak agindua betetzeko agindu edo erabilera baimen edo lagapena iraungitzea erabaki dezake.

#### **14. artikulua**



### *Ajangizko Udala*

Ajangizko Udalak honako betebegar hauek ditu:

- a) Ordenantza honetatik eta indarrean dauden legeetatik eratorritakoak.
- b) Zentro bakoitzeko erabilera komuneko eremuak osasun egoera eta higie baldintza hobezinetan zaintzea.
- c) Ajangizko Udalaren ardura izango da bere ardurapeko eraikinaren egitura mantentzeko konponketa eta ordezkpenak egitea. Horrelakotzat hartuko dira eraikinaren egiturari, fatxadari eta estalkiei etra zerbitzuen kanpoko hartuneei eragiten dietenak, zentroa behar bezala erabiltzearen ondorioz gertatu badira, betiere.

## **V.TITULUA**

### **ERABILERA LAGAPENA IRAUNGITZEKO ARRAZOIAK**

#### **15. artikulua**

Ajangizko udalak prekarioan lagako ditu ordenantza honetan azaldutako lokalak. Ajangizko udaleko Alkatetzak hartutako arazoitutako erabakiaren bitartez iraungiko da prekarioa. Udalak bidezko agindeiaren bidez, hilabete bi lehenago eskatuko dio lagatakoa talde edo elkarte onuradunari.

Lagatzeko erabakia honako arrazoi hauengatik iraungi daiteke:

- a) Hasierako epea eta luzapenak amaitu direlako.
- b) Bi aldeek horrela erabaki dutelako.
- c) Talde edo elkarteak uko egiten duelako edo lagatako eremuak ez direlako baimendutako helburuetarako erabili.
- d) Lagatzeko erabakian azaldu ez ziren edo ordenantza honetan ezarritakoaren kontra egiten duten jarduera, zerbitzu edo bestelakoak egin direlako, batez ere partikularrentzako irabazia dakarten jarduera ekonomikoak badira, esaterako prentsaurrekoak, jaiak, bazkariak, etab.
- e) Talde edo elkarte desegin delako.
- f) Beste zerbitzu publiko batzuk emateko lokala erabiltzeko arazoitutako beharrez dagoelako.
- g) Lokala behar bezala erabili ez delako.
- h) Ordenantza honetan araututako betebegarren bat bete ez delako.



*Ajangizko Udala*

**16. artikulua**

Erabilera baimen edo lagapena adierazitako arrazoiren batengatik iraungiko balitz, eragindako talde edo elkarteek ez dute inolako kalte-ordain edo konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izango.

**17. artikulua**

Erabilera baimendu edo lagatzeko erabakia suntsiarazi edo iraungi ondoren, talde edo elkarteak gehienez hhamabost (15) eguneko epeanitzuli beharko dio Ajangizko Udalari lagatako eremu eta ondasunen erabilera. Hori egin ezean, talde edo elkarteak izango da atzeratzeak eragin litzakeen kalte eta galeren arduraduna.

**AZKEN XEDAPENA**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan araututakoaren arabera, Ordenantza hau testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoan sartuko da indarrean.